
ELIZA

CHARLES LAVIGERIE KARDINALA

Beste euskaldun andi baten mendeurrena dogu gainean. Charles Lavigerie kardinalarena. Aurtengo azaroaren 25ean beteko dira eun urte bera il jakula.


Euskalerriko zero-sapaian sortutako izarrik disditsuenetariko bat dogu. Emeretzigarren gizaldiak emon dauskun semerik inportanteneritakoa dogunik, ezin ukatu. Euskaldun unibertsalik bada, dudarik baga, bera dogu bat.

Merezi dau olako gizonen mendeurrena ospatzea. «Goratu daiguzan gizon onak, gure asabak izandakoak» diño Siraken liburuak. Historian zear, euskaldunoi leporatu dauskuezan birtuteen eta doaien jabe dogu Lavigerie kardinala. Bere izaerea barne-barnetik euskal odola dariola daukagu. Bere ezpanetan eta bere idazlanetan ez da lotsatzen euskaldun lez bere burua agertzen. Sarritan agertzen da bere idazlanetan frase au: «Je suis basque, et, à ce titre, enteté, lorsqu'il le faut». «Euskalduna naz eta, beraz, buru gogorra bear danean». (Cfr. CRUSSEN, MEYER, A.C., *Documents Biographiques sur son éminence le cardinal Lavigerie*).

Euskal-arimaren muinean birtute oneek baloratzen ditu, geienbat, Lavigerie kardinalak: ekimen izpiritua («l'esprit

d'initiative) eta animu bulartsua eta sendoa gauzak aurrera eroateko. («la trempe indomptable de caractère et d'énergique courage»). Olakoxe gizona dogu Lavigerie. Gizon oso osoa. Makina bat gauza eder sortu eta aurrera aterako ditu. Ez da oztopoen aurrean erraz kikiltzen dan gizona.

Jaungoikuak daki bakarrik, Afrikako lurraldeak zenbat zor dautson euskaldun andi oni! Esaterako, eskerrak berari desagertuko da Afrikako lurraldeetatik esklabumerkataritza lotsagarria. Eskerrak berari askatasunezko kristau zibilizazioa elduko da Afrikako biotzeraino. Orretarako fundatuko ditu «Aita Zurién» eta «Aizta Zurién» erlijioso erakundeak. Eskerrak berari, ainbat karitatezko erakunde sortuko dira gose gorrian bizi diran afrikarrei laguntzeko.



Lavigerie Kardinala

Kultura zabaleko gizona dogu. Ez bakarrik teologian eta historian, baita «in utroque» araudietan be doktore dogu. Eleizaren eta Frantziaren eta Afrikaren historiaz lilluratuta bizi da. Biotzean daroa Frantziaren historia eta kultura eta betebearra. Kristau humanismoaren babesle eta gidaria frantzia da berarentzat. Ta orixe da Frantziaren zereginik bikainena: kristau zibilizazioa zaindu eta munduan zear zabaldu. «Gesta Dei per Francos» barnean daroa eta sarritan darabil bere aoan

be. «Christianissimum Regnum» izan da eta izan bearke dau Frantziak. Bestela ez da izango leiala bere historiari. Baliteke auxe izatea, beste mundura eroan eban arantzarik mingarriena!

Itzelezko erreztasuna dauko berba egiteko. Izlari famatua izango da. Frantzian eta Afrikan zear bere oratoriaz arrituta geratuko dira. Ez bakarrik gorputzez gizon galanta dalako edo abots ederra daukolako, batez ere bere paregabeko ekarri biziak. Bere karta pastoralak be oratori kutsua darie. Literatura aldetik dotoretasun beteriko estiloa darabil. Ez da arritzekoa, Frantziako akademiku izateko autagai zerrendan agertzea! Ez dau mundu orretan sartu nai, beste milla ekintzetan sartuta bizi dalako.

Mundu onetako arazo nagusiei lotuta bizi dau bere kristau fedea. Kolore batekoak eta bestekoak, aurpegira botaten dautsoen akusazioa auxe da: «Zeruko gauzak ezpanetan baina mundu onetako arazoei lotuta bizi». Orixe izango da Frantziako ezkertiarren eta eskumatarren salakuntza. Baita Barail eta Mc-Mahon mariskalen denuntzia be. Lavigerie kardinalaren erantzun sakona beste au izango da: «Nihil humani a me alienum».

Lavigerie kardinalaren erretraturik osoena, Richelieu kardinalak eta Bizente Paul santuak bat eginda, emongo leukela, idazten dau Georges Goyau, Frantziako akademiku eta historigileak. (cfr. GOYAU, G., *Le Cardinal Lavigerie*). Badau bere arrazoia. Alde batetik Richelieuren talentu politikua, bestetik Bizente Paul santuaren karitatea eta biotz misiolaria. Lavigeriek aparteko doaiak daukoz jendeaz tratatzeko. Naizta euskalduna izan, badaki ondo baino obeto jendeen arteko arazoak konpontzen. Badau orrelako diplomazia alkarrizketarako. Ez da burugogor tematsua. «Enteté» ori, konbeni jakonian bakarrik. Ez da, ez, baserri giroko euskalduna. Ezta arrantzale girokoa be. Kale kalekua dogu. Aita administrazioan egiten dau lan. Aduanetan goi mailako lanpostua dauko. Ama Baionako Diru-kutxa zuzendariaren alaba da. Baliteke ortik sortzea, jendearen borondateak alkartzeko doia.



Jaiotetxea Baionan

Beti be, orraitino, Bizente Paul santuaren birtuteak geiāgo nabari dire bere bizitzan. Baditu Richelieuren birtuteak be. Eskerrak Lavigerie kardinalari, Aita Santuaren eta Frantziko gobernuaren arteko tirabirak konpontzen dira. Bera be jabetzen da bere kualitate orreekin. «Badaukot berba egiteko erraztasuna eta gizon-emakumeen arteko arazoak konpontzeko gaitasuna. Baita gauzak aurrera eroateko bear dan dirua lortzeko abiltasuna be». Onela mintzatuko da Argeliara doala.

Beste kualitate guztien gainerik, Charles Lavigerie misiolaria dogu. Afrikako misiolaririk andiena. Bera bezelako misiolari gitxi izan ditu Eleizak. Konbentziduta dago, kristau zibilizazioa dala munduaren arnasa. Afrikako jendearekin maite minduta bizi danez, bere elburu nagusia Ebanjelioaren azi ederra afrikatarren biotzetan ereitea izango da. Bere zillarrezko gotzain urtebetetzean egindako omenaldian, auxe esango dau: «Ni neu misiolari bat besterik ez nozue. Nire beste titulu guztiak orretarakoxe baino ez dabe balio izan».

Baionatik Parisera

Charles Lavigerie Baionan jaioko da 1825eko, urriaren 31an. Neba-arreben artean zarrena. Gurasoak baditue beste neskame bi etxeko serbitzurako. Famili oneko seme danez, betharramitarren kolejiora bialtzen dabe Charles. Betharramitarren fundatzailea Mikel Garikoitz santua dogu. Oneekin egingo ditu bere lenengo ikasketak.

Amairu urtekin abade izateko gogo bizia sortzen jako. Gurasoak naizta beste asmo batzuk izan ez dautsoe seme nagusiari oztoporik jarten. Bere aitak laguntzen dautso Lacroix gotzaiarengana. Alkar-izketa luze bat izan ondoren, Larressoreko seminarioan sartzeko baimena lortuko dau. Bi urtetan jarraitzen ditu ikasketak Larressoren. Ta emendik Parisko seminariora.


Gero Orleansko gotzain izango dan Dupanloup famatua eukiko dau erretore. Gizon onen izaerak eta bere kristau portaerak, itzelezko eragin positiboa izango dabe Charles seminarista gatzetxoarengan. Parisko seminarioan bere ikaskide ditu gero Reimseko apezpiku izango dan Langanieux kardinala, baita Lyongo apezpikua izango dan Foulon jauna be. Badira beste ikaskide batzuk gotzain izatera elduko diranak. Esaterako, Hugonin jauna, Bayeux eta Lisieuxko gotzaina. Eskerrak Santa Teresitari, Hugonin historira pasauko da. Bere baimenez sartuko da Teresita amabost urtekin monja karmeldar. Parisko lenengo urte biak naiko zailak egiten jakoz gure gatzetxoari. Ez dago oituta ango otzagaz. Euskalerriko inguruetako zelai berdeekin diardu amesetan.

Filosofia eta Teologia be Parisen egingo ditu, San Sulpizio seminario ospetsuan. Oso argia dogu Lavigerie gaztea. Ogeita bi urtekin asiko da argitaratzen liburuxka oneik: «Cours de thèmes grecs», «Cours de versions grecques», «Dictionnaire grec-français», «Histoire Sainte», «Histoire de l'Eglise». Emen ezagutuko dau Renan bere abadetzari itxi orduko. Carmes kolejioan jarraitzen ditu bere goi maillako ikastaroak. Emen eukiko dau

irakasle Ozanan andia be. Sorbonan lortuko dau bai filosofian eta bai teologian doktoregoa. Orretarako bi tesi burutuko ditu. Bata frantsesez: «Essai sur l'École chrétienne», eta bestea latinez: «De Hegesippo», Eleizaren historigillerik zarrenetarikoa berau. Erroman lortuko dau «in utroque» araudietan doktore izatea.

Sorbonatik Nancyra

Ain ondo gertauta dagonez, Caengo unibertsitatean eskainzen dautsoe irakasle izateko aukera. Ez dau nai Paristik urrutzerik. Carmes kolejoan asiko da klaseak emoten. Eta 29



urtekin, Sorbonako irakasle izendatuko dabe. Bere gaia Eleizaren historia. Zortzi urtetan izango da bertoko irakasle. Emen be argitaratzen ditu beste liburu batzuk. Esaterako, «Etude sur Luther» eta «Leçons sur le Jansenisme». Liburu au dala ta ez dala, kritika gogorak jasoko ditu. «Observateur» egunkaria izango da gogorrena. Egunkari orren zuzendaria Guettée jansenista amorratua danez, aldikada baten ez dau bakerik izango Sorbonako irakasle gazteak.

Sorbonako irakasle izateari itxi barik, Ekialdeko Eskolen zuzendari aukeratuko dabe Lavigerie. Bazan Franzian ekialdeko

lurraldetan lana egiteko erakunde barri bat. Montalembert eta Ozanan eta beste katoliku batzuk sortutako mogimentua. Euron elburua kristau kultura eta zibilizazioa eskolen bidez ekialdeko lurraldetan zaintzea eta sendotzea. Mogimentu orren zuzendari aukeratuko dabe Charles Lavigerie.

Olan erneko da barnean daroan misiolari bokazioa. Badauko ze ikusia beste euskaldun batek be. Ravignan erlijiosua da Lavigerieren konfesorea eta zuzendaria. Baionatarra au be. Ekin ta ekin dabil bultzatzen misio lanetara. Ekialdeko Eskolen zuzendaritzan beste mundu barri bat ezagutzeko aukeran dago: musulman mundua, Turkia, Ejipto, Palestina, Siria, Libano. Erri oneetan aleginduko da eskolen bidez kristau zibilizazioa indartzen. Zelako oztopoak ezagutuko dabezan gauzak aurrera eroateko! Alde batetik dirurik eza. Orretarako zenbat itzaldi Frantzian zear: Paristik Marseillaraino, Baionatik Lyoneraino. Bestetik maometarren erasoaldiak eta basakeriak. Berrogeitamar milla baino kristau geiago garbituko dabez Libanon bertan



Izurri eta goseteen Argelen (1867) laguntza ekintzan antolatzen

maometarrak. A zan negarra ta triskantza! Lavigerie bera be juxtu juxtu salbauko da triskantza orretatik. Urte orreetan asiko da zuurtasunez jokutzen musulman burubero amorratuekin.

Aita Santuak Nancyko gotzain egiten dau Lavigerie. Ogetamazortzi urte besterik ez ditu. Bizi bizirik aurkitzen dau Nancyko eleizbarrutia. Lau urte bete beteak emongo ditu. Lanik ederrena Seminario Nagusiko ikasketak goitik bera barriztatu eta gaztien eziketarako bide barriak jorratu. Kristau irakasleak gaurkotzeko goi-maillako kolejio bat be sortuko dau. Ta abade zarrei laguntzeko pentsio egokia billatu. Beste lan zoragarri bat izango da, eskoletan erlejiñoa emoteko kristau laikoak gertatzea. Ordainduta gainera. Lau urte eder iraungo ditu Nancyko eleizbarrutian.

Argeleko apezpikua

Berrogeita bi urtekin Argeleko apezpiku izentatuko dau Aita Santuak. Erromak badaki Lavigerie jaunaren asmoak musulmanei buruz. Ekialdeko Eskolen zuzendari dala, baten baino geiagotan aurkitzen da Erroman. Argelera abiatzen ez dautso bildurrik ez arabiatarren politikari ez Frantziako gobernu antiklerikalari. 1867ko maiatzaren 16an elduko da Argelera. Egun historikua benetan. Lilluratuta dago Ifarafrikako kristau historiaz. Sarrerako itzaldian goratu dau Tertulianoren eta Agustinen eta Ziprianoren eleiza. «Gloriaz beteriko Eleizea ta orain illetaz lurperaturik zagozan Eleizea! Lazaro urten illobitik» izango da bere oiua. Orretan jardungo dau eriotzaraino.

Argelia ate bat besterik ez da, Afrikaren biotzeraino sartzeko. Apostolutzarako bideak sakon aldatzen ditu. Bide bi aukeratzen ditu Ifarafrika ebanjelizatzeke: karitatezko obrak eta eskolak. Bere asmotan gauzea ez da Frantzitik Argeliara jendea ekartea, argeliarrak eta beste Ifarafrikarrak kristau zibilizaziora ekartea baino, au da, euren sustraietara biurtzeraino. Maometarren eskuetan jausi orduko, Ifarafrika kristau odolaz bedeinkatuta dago. Non-nai egiaren, karitatearen eta bakearen mezulari



izango da. Karitatezko obren bitartez aleginduko da arabiarren biotzetara eltzen eta eskolen bitartez arabiarren buruetara. Frantziako gobernuaren laguntasun barik geratzen danian, Frantziara doa eta erriz erri saiatuko da dirua batzen Argeliako pobrieci jaten eta eskola apur bat erakusteko.

Ainbat salakuntza izango ditu. Baina beti pobrienak bere alde urtengo dabe. Ta geienak musulmanak dira. Bada izkuntza bat mundu guztiak ulertzen dabena. Bere izena maitasuna. Billotsik dagona jantzi,

gosez dagonari jaten emon... Orixe da Lavigeriearen bidea... Argelia naziño andi, aske eta kristau bidetara barriro be biurtzea.

«Aita Zuriak»

Beste milla gauza eder artean «Aita Zurien» fundatzaillea be badogu Lavigerie. Krisis gogor baten sartuta daukagu. Lurra jota ikusten dau bere burua. Alde batetik Frantziako gobernuak ez dautso laguntasunik emoten bere obrak aurrera eroateko eta eskeku bat bezela Frantzian zear darabilgu. Bestetik ez dau ikusten musulmanen artean inondiko konbertsiorik. Gorrotoa eta fanatismo zoroa besterik ez dau ikusten maometar jauntxoan artean. Ta batez be, ezin dau Argeliatik Afrika erdirantza jo.

Argi dauko asieratik, Argelia ate bat besterik ez dala Afrika ebanjelizatzeke. Zer egin?

Bere ametsak eta bere pentsamentuak aurrera ataratzeko, fundatuko ditu «Aita Zuriak». Kongregazio barri au, Afrikako Andra Mariaren babespean jartzen dau. Lavigerie ez dabil lañutan. Berealaxe emoten dautsee bere misiolariei araudi konkretua. Loiolako Inñazioren araudian oiñarritzen da, geienbat. Lavigeriek umetatik mirestu izan dau gure patroï andia. Itzez-itz kopiatuko ditu Loiolakoaren araudi batzuk. Esaterako, obedientziari buruzko araudi famatua.

«Aita Zuriak» izango dira bere begi ninia. Euron bitartez elduko da Afrikako bazterretaraino. Askotan gogoratuko dautseez lau eskabide eder oneek:

1.- Lenengoa, Afrika ebanjelizatzea. Afrikatik kanpo ez daukee zer eginik. Orixe da euron karisma berezia. Bestelako eginbearrak Afrikara begira onartzen dira. Afrikako mugetan lan egiteko jaiok diranez, afrikarren usarioak onartu bear dabez jateko orduan, janzkeran eta batez be afrikarren izkuntzak ikasi ta erabiliaz.

2.- Bigarrena, apostolutzan zuurtasunez, iraupen andiz eta karitatezko obrekin jokatu. Zuurtasunik barik, izugarrizko kaltea letorke. Egiten dan lana bertanbera jausteraino. Pazienzi andiz artu gauzak. Sufrimentuen aurrean, animue galdu barik aurrera jarraitu. Eta beti karitatezko obrakin ekin. Karitateak zabaltzen ditu gizonen biotzak. Karitatezko ekintzekin lortzen da afrikarren konfiantza.

3.- Irugarren eskabidea, kongregazio barruan bear dan batasuna. Biotz bat eta arima bat izateraino alkar maitatuz. Gorputz bat, famili bat izaten alegindu, alkar defendiduz, alkarri lagunduz. «Ut unum sint» oiukatuko dautsee bein eta barriro. Alkar maitasuna izan bear dau, Afrikako misiolarien arnasa.

4.- Eleizaren ildotik jokatu. Aita Santuaren esanetara prest egon. Lavigeriek betharramitarren kolejioan ikasi izan dau Aita

Santuarenganako maitasuna, errespetoa eta itzala. Batikano I Kontzilioan, Aita Santuaren alde urtengo dau, naizta orretarako bere biotzeko adiskide batzuegandik aldendu izan bear. Bere itzaldietan eta, ze esanik ez, bere azken testamentuan, argi agertuko dau Aita Santuaren postu berezia Eleizaren misterioan. «Ubi Petrus, ibi Ecclesia» izango da bere barru barruko ustea. Ta orixe eskatzen dautsee bere misiolariei be.

«Aizta Zuriak»

Berealaxe konturatzen da Lavigerie, andrazkoen inportantzia Afrikan ebanjelizatzeke. Gizonak eltzen ez diran lekuetara eldu leike emakumea. «Des femmes apôtres après des femmes» esango dau sarritan. Biotzak ikutu eta begiak federa zabaltzeko, emakumeak bere doaiak ditu. Karitatezko obretan, emakumei geldi itxi bear jake. Gainera emakume erlijiosak bai musulmanen artean eta bai afrikar baltzen artean, beste mundutik etorritako aingeruek dirudie. Musulmanak eta afrikar baltzak ez dabe onartzen gizon europeotarrak euren andrazkoekin artu emonik izaterik. Bai osterera, erlijiosakin.

Lavigeriek idea oso ederrak eta aberatsak ditu emakumeengan. Ondo letorke mendeurren onetan, orretaz tesis edo beste lan sakon bat egitea. Makina bat aobero ixilduko litzake Lavigerie andiaren pentsamentuak eta ekintzak ikusita. Or daukagu eleiz gizon bat, emakumearen duintasuna eta eskubideak zaintzen aurreratuen. «Nire gaztaroa gizonen eziketari emon izan dot. Nire zartaroa, osterera, emakumeen eziketari. Gizonezkoena baino garrantzizkoagoa da emakumeen apostolutza». Ezta lotsatuko onela mintzatzean. Bere begiekin ikusten dau karitatezko obretan esku berezia daukeela emakumeak. Baita erlejiñoa biotzetik biotzara iragarteko be. Zenbat denpora emongo dabezan emakumeak preparatzen apostolutzarako! Daukon guztia emoten dau euron alde.

Esklabutzaren aurka

Charles Lavigeriearen gurari bizia bere «Aita Zuriekin» eta bere «Aizta Zuriekin» Afrikan zear misiolari izatea izango da.

Orretarako Aita Santuari eskatzen dautso, Argeleko apezpiku izateari iztea. Erromako erantzuna, Afrikako Buru eta Eleizako kardinal izentatzea izango da. Orrela onartzen dautso Erromak bere asmoak eta ekintza izugarriak. Afrikako ebanjelizatzea bere eskuetan jarten dau Aita Santuak.

Ara eta ona asiko da bere misiolariak bialtzen. Berealaxe beste bildurgarrizko arazoan artean, asiko da Lavigerie



Lavigerieren oroigarria Baionan

kardinalaren esklabutzaren aurkako kanpaña gogorra. Barrero be Europara dator diru billa esklabutza desegiteko. Eta batez be, Europako gobernuei begiak zabaltzeko. Naizta zaartuta egon eta geixorik aurkitu, Europako uriburuetan jarraituko dau predikatzen. Paris, Londres, Bruselas, Roma, Marseilla izango dira testigu. Bere azken urteetan ortxe gastauko ditu bere indar guztiak.

Esklabutzaren aurkako kanpainan, ainbat misiolarik isuriko dabe odola. Berak bialdutako misiolariak izango dira Tanganika eta Ugandako leen martiriak. Gaur egunean,

Lavigerie kardinalaren ainbat misiolari ditugu altaretan. Esklabutzaren aurka egin dauan lanagaitik, merezi dau Lavigerie jauna urrezko letrekin gogoratzea. Pena emoten dau, olako euskaldun gizon andi baten aipamenik be ez egitea gure artean. Ezin dau erri batek aurrera jo, bere gizon onenak ixilduz!

A. Olea